

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mirentxu Agote Aramendi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako Parte Zaharrekoa, jaio zen etxe berean bizi izan da beti, Angel kalean. Gurasoak ere donostiarrak zituen: Joxe Migel aita saregilea zen Pasaian; Pepita ama, berriz, Toribio Alzagarekin ibili zen antzerkia egiten, gerra aurretik. 1945ean, “Ramuntxo” egitea eskatu ziotenean, alaba ere antzerkian hasi zen. Urtero taularatzen zuten antzezlanen bat, beti euskaraz, Maria Dolores Agirre gidari zutela. Ikasi, baina, erdaraz egin zuen dena, Mirentxu mojen eskolan ibili baitzen: lehenengo Elizaranen, eta gero San Bartolomen. Akademia batera ere joan zen, kontabilitatea ikastera, baina gero ez zuen erabiltzerik izan. Etxe azpian ezagutu zuen senarra izango zuena, eta bertara ezkondu ziren. Bi seme izan zituzten. Oso etxezuloa da, eta etxea landarez beteta dauka. Gantxiloa ere egiten du.

Zintak

DON-021

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-28
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Lehengo Anjel kalea eta Kai ingurua

- **Erref:** DON-021/002
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Parte Zaharreko Anjel kalean jaio zen Mirentxu. Lehen oso ezberdina zen, hasieran hiru etxebizitza egin zituzten bertan. Oso toki onean dago, akats bakarra igogailurik ez duela da. Kai ingurua ez da askorik aldatu, lehen jende gehiago aritzen zen lanean. Moila leihotik bertatik ikusten du. Lehen 'el barrio de la jarana' deitzen zioten, zarata, eta haserre asko izaten zelako. Arrantzaleak lehen oinutsik ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Hau nolakoa zan zu umia ziñala?
- Ba oso ezberdiña. Eske etxe hau /etxiau/ erosi zuten 3 bizitzakua nere aiton-amonak eta laugarrena zan ganbara. Hau. Eta, orduan, erosi zuten hiru eta laugarrenakin, ganbarakin, in zuten laugarrena. Baiño oso ezberdiña uste det. Eta ya gero, milla ta... el cincuenta, goiko bizitza in zuten, oseake, bosgarrena. Eta, orduan, seigarrena ere jarri leike, baiño oain ez [dute iten]. Baiño ez dakau patiyok, ez dakau ezer, eta aszensorik ez, eta lekuik ez.
- Hori pena, ez? Aszensoriandako lekuri ez egotia?
- Uiii! Hori falta zaio etxe honei /etxionei/.
- Bai, bestela...
- Lekua oso ona da.
- Bai, portura... Bueno, kaia ikusten da.
- Dana.
- Argitsua...
- Bai, hoixe.
- Eta lehen hau, kai ingurua, nolakoa zan?
- Ba berdiña. Hemen aurrian ez zeon ezertxo ´re. Bueno, itsusiyaua zeon, zaharraua, eta ya aldatu zuten ta... hoixe.
- Baiña hor jende gehio ibiliko zan lanian oain baiño?
- Bueno, bai, jende gehio ibiltzen zan, eske arraia izaten zan hemen, eta oain askoz gutxiyo. Oseake...
- Oin ez da arraiñik iristen?
- Gutxi. Gutxi.
- Eta zuek hemendik dana ikusiko zenuten...
- Bai. Eta goizian ni jeiki naiz, ba, zortziyak ingurun jaikitzen naiz, eta zeozten txalupa batzuk hor moillan —bueno, ez, kanpon, [Kontxan]— eta txipiroitan, geldi-geldik.
- Eta hori, lehen ´e bazeon ohitura hortako?
- Bai, gehio.
- Gehio?
- Gehio. Lehen deitzen ziyoten “el barrio de la jarana”, beti jaleok izaten zialako. “El barrio de la jarana”. Han, e? Baiño gu oso aparte bizi gea hortikan.
- Eta hor ze egoten zan, ba, jende asko beti kalia eta...?
- Bai, eta bronkak eta hasarretu bata bestiaquin ta... hola ibiltzen zian! Baiño oain ya ez dao; edukaziyo gehio. Oseake... Hori ´re asko iten du /iteu/.
- Eta lehen jendia, bueno, esaten dute arrantzaliak-eta oiñutsik...
- Ibiltzen ziala. Bai. Eta oain zein ibiltzen da oiñutsik? Iñor ez.
- Baiña eroso ibiltzen ziala hola.
- Bai, pozik gaiña haiek! Ni behintzat ez [nintzake] asmatuko, e! Eske

nahikua jarri [...] hanka bat, ya [behian] zerbait baldin badao sartzeko nere hanketan. Oseake...

2. Ikatza moilara ekartzen zuten lehen

- **Erref:** DON-021/003
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Moila etxeko leihotik ikusten du eta lehen ikatza-eta ekartzen zuten bertara. Arraina kai aldean deskargatzen zuten. Lehen sukaldean ikatza erabiltzen zuten ekonomikarako. Ekonomia ura berotzeko erabiltzen zuten; gainerakorako beti izan dute gasa.</p>

Transkripzioa

- Hemengo lanbideak zeintzuk ziran? Hemen ze lan iten zan?
- Gero hemen etortzen zian "los de la carga". Bueno, "descarga" o "carga" o... Ekartzen zuten batzutan ikatza, egurrak... Baiño ya hori dana kanpoa zan, oseake, Pasaira o ez dakit nora. Ta hemen ya "de recreo" ya.
- Eta etortzen zan arraiña kamioietan-eta eramaten zuten?
- Eramaten zuten, bai. Baiño arraia handikan, e! Hemendikan ya bestia, osea, o... "cemento" ere. Nola da "cemento"?
- Bai, zementua.
- Zementua, ezta? Bueno. "Cemento" eta ikatza.
- Porlana, ez?
- Porlan. Hoiek, hoiek. Baiño beste aldea, e! Honea.
- Eta hori ze iten zan ikatza gero? Erabiltzen zan ikatza etxetan?
- Ba, bai. Lehen sukaldiak izaten gendun, "económicas". Ni gogoratzen naiz, brillante gustatzen zitzaiten eta ze iten nun? Altxa sukalde gaiña, osea, "a la económica", gaiña, eta alanbriakin "ra-ra-ra" pasatzen nun. Errexo hankakin pasatzia ez eskuakin baiño, eta hola brillante-brillante! Baiño gasa beti izan degu, e? Osea, "la económica" ibiltzen zan berotzeko ura. Ura berotzeko, bai. Bestela ez.
- Ta bestela butanoa? Butano bonbona?
- Ez, orduan ez zan. Ez, ez, ez. Gas naturala, oseake, "gas ciudad", oain "natural" esaten dutena.
- A! eta beti egon da hemen?
- Bai, beti izan deu hori. Baiño butano nik sekulan ez.

3. Aita saregilea zen

- **Erref:** DON-021/005
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Aitak Pasaian egiten zuen lan, saregilea zen. Beraiek izan ziren lehen gizonezko saregileak. Ez daki nola egiten zuten lan, ez zen sekula joan aita ikustera. Tranbian joaten zen Pasaiairaino.

4. Mojen ikastetxeetan ikasia

- **Erref:** DON-021/007
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:09:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Elizaranen eta San Bartolomen ikasi zuen. Dena zen erdaraz. Ikastetxe bietan mojak zeuden, baina San Bartolomen uniformeak zuten. Mirentxu beti konpondu izan ondo mojekin. Etxean ohituak zeuden zuzen ibiltzera, ondo haziak zeuden.

5. Antzerkiko aktore

- **Erref:** DON-021/008
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:09:44. **Bukatu:** 00:13:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Bere ama antzerkian ibili zen eta baita Mirentxu bera ere. Hala ere, berak behin baino ez zuen ikusi bere ama taula gainean. Urtero egiten zuten antzerkia Santo Tomas egunean Printzipal aretoan eta San Sebastian egunez Victoria Eugeniean; dena betetzen zen. Maria Dolores Agirre zen beraien zuzendaria; hura eta beste kide batzuk hiltzerakoan indarra galtzen hasi zen. Elkarrizketa garaian ere oraindik antzerki-taldea martxan zen.

6. Gurasoen antzerkian txikitatik

- **Erref:** DON-021/009
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:13:01. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Bere gurasoak txikitan hasi ziren antzerkia egiten. Hasiera horiek azaltzen ditu. Neska-mutikoak zirela elkarrekin aritzen ziren antzerkian. Toribio Alzaga zen beraien zuzendaria eta Maria Dolores Agirre haren laguntzailea. Bere amarekin beste lau-bost emakume aritu ziren hasiera haietan. Non entseatzen zuten.

7. Tela erosi eta arropa jostunak egin

- **Erref:** DON-021/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:20:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Bere neskatila gaztea zela, bere ama Erreteriarra joaten zen telak eroatera. Bere nebak jaurnartzea egin behar izan zuenean, tela lortzea ez zen erraza izan. Jostunak egiten zizkien horrelako arropak enkarguz.

8. Gauzainak

- **Erref:** DON-021/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Gauzain edo serenoen lanbidea desagertu da jada. Haien eginbeharra zein zen. Beraien etxeko atea beti ezagutu du itxita Mirentxuk.

9. Donostia erre zutelakoan, Oriora ihesi

- **Erref:** DON-021/016
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:22:03. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean oso txikia zen eta ez ditu ondo gogoratzen ordukoak. Bere aita abertzalea zen, alderdian ibilitakoa; hori dela-eta, Orioko senitarteko batzuenera joan ziren. Donostiari su emango ziela uste zuten eta bere gurasoek badaezpada ere etxeko eskriturak hartu zituztela egin zuten alde etxetik. 'Garage Moderno'ri baino ez zioten eman su. Lehenago zaintzak egiten ibili zen bere aita, ez zezaten Donostia erre. Egoera normaltasunera bueltatu zenean, Donostiara etorri ziren.

10. Polizia aitaren bila sarri

- **Erref:** DON-021/017
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Bere aita abertzalea zen eta askotan joan izan zen Francoren polizia aitaren bila. Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean, beraien aita kartzelara eramaten zuten. Beraien etxea miatu eta nahi zuten guztia ere eramaten zuten.

11. Mirentxutik Maritxura

- **Erref:** DON-021/018
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:26:42. **Bukatu:** 00:27:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Euskaraz egitea debekatuta zuten. Mirentxu kalean 'Maritxu' zen.

12. Gerraostean jatekoa nola ezkutatzen zuten

- **Erref:** DON-021/019
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:27:19. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean ez zuen goserik izan Mirentxuk. Azukrea, olio, kontserba-latak... nola ezkutatzen zituzten azaltzen du.

13. Errazionamendua eta tabernak

- **Erref:** DON-021/021
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu txartelarekin dendara joan eta bertan jasotzen zuten zegokien jeneroa. Etxe inguruan beti izan dituzte taberna eta dendak. Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen.

14. Su artifizialak eta izozkia Donostiako Aste Nagusian

- **Erref:** DON-021/022
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:30:28. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Aste Nagusian, Ama Birjinaren egunean, Guria tabernara joaten ziren eta su artifizialak ikusten zituztela izozkia jaten zuten.

15. Bretxara eroatera

- **Erref:** DON-021/024
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:33:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Haragia zein barazkiak Bretxan erosten zituzten. Konstituzio plazan ere egoten ziren baserritarak. Lehen Bretxa nolakoa zen azaltzen du. Zalgurdiak ikustea oso normala zen, automobilik ez. Gaztetan bazuten bizikleta; neskak bizikletan joatea itsusia omen zen, baina Mirentxu ibiltzen zen.

16. Etxeko jatorduak

- **Erref:** DON-021/030
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:39:47. **Bukatu:** 00:40:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Beraien etxeko jatorduak nolakoak izaten ziren. Arrain asko jaten zuten.

17. Tabernetara sartzeko lotsa

- **Erref:** DON-021/040
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:49:05. **Bukatu:** 00:49:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mutilek neskek baino askatasun gehiago zuten. Bera osabaren tabernara joaten zen, beste taberna batera sartzeko lotsa ematen zion.

18. Ogiari gurutzea egin eta muin eman

- **Erref:** DON-021/042
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:49:34. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Askotan joaten ziren mezara, nahi eta nahi ez. Elkarriketa garaian ere oraindik mahaia bedeinkatzen zuen jaterako orduan. Ogiari ere gurutzea egiten zieten eta lurrera eroriz gero muin eman.

19. 'Andre Joxepa tronpeta' antzezlan

- **Erref:** DON-021/046
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:52:29. **Bukatu:** 00:54:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

'Andre Joxepa tronpeta' antzezlanaren berri ematen digu pasarte honetan. Mirentxu izar gainean zihoan sorgina zen antzezlan horretan, 'Kaxiana'. Hura dekoratzea ez zen erraza, bere amaren garaian egindako dekorazioa zen.

20. Toribio Altzagaren euskarazko antzezlanak

- **Erref:** DON-021/047
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:54:41. **Bukatu:** 00:56:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Toribio Altzagak sortutako antzezlanak ziren beraiek antzezten zituztenak. Mirentxuk ez zuen ezagutu, baina bere amak asko hitz egin zion berari buruz. Dena egiten zuten euskaraz. Ez zuten arazorik izaten, baina baimena eskatzeko antzezlanaren gaztelaniazko bertsioa bidali behar izaten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com